

# Hirugarren bilera



Sinodo-seneko Eleizaren alde  
alkartasuna | partaidetza | misioa

## BIDEAN GOAZ, HITZA ENTZUNEZ ETA GEURE EGINEZ

Entzute da lehen urratsa, baina horretarako ezinbestekoa da burua eta bihotza zabalik izatea, aurreiritzi barik. Eta, era berean, guztiok hitz egin behar dugu beldur gabe, askatasun, zintzotasun eta maitasunez.

### 1.- OTOITZA

Zati hau bileraren hasieran egingo bada ere, egokia da partaide bakoitzak aurretik etxean prestatzea.

- **Laguntza-erregua Espiritu Santuari bilerari ekiteko:**  
"Adsumus, Sancte Spiritus"...

- **Apostoluen Eginetarik (15, 1-3.4.6-7.10-12)**

«Judeatik Antiokiara jaitsi ziren batzuk hango senideei irakaspen hau ematen hasi ziren: "Moisesengandiko usadioaren arabera erdaintzen ez bazarete, ez zaitezketek salba". Hori zela eta, sesioa sortu zen, eta Paulok eta Bernabek eztabaida gogorra izan zuten haiekin. Orduan, Paulo, Bernabe eta beste batzuk Jerusalemara igo zitezela erabaki zuten, apostolu eta arduradunengana, auzi hori argitzera. Jerusalemara iritsi zirenean, eliz elkarteak, apostoluek eta arduradunek harrera ona egin zieten, eta Jainkoak beraien bidez egindako guztiaren berri eman zieten... Orduan, apostoluak eta arduradunak arazo hau aztertzeke bildu ziren. Eztabaida luzearen ondoren, zutitu zen Pedro eta esan zuen: "Anaiok, dakizuenez, aspaldi aukeratu ninduen Jainkoak zuen artetik, jentilek nire ahotik berri onaren mezua entzun zezaten eta sinetsi. Horrela, bada, zergatik tentatzen duzue orain Jainkoa, gure gurasoek eta guk ere ezin eraman izan dugun uztarria ikasle horiei leporatzen saiatuz? Ez horixe! Uste dugu Jesus Jaunaren onginahiari esker salbatzen gaituela Jainkoak, bai gu eta bai jentilak". Biltzar guztia isildu egin zen Paulori eta Bernaberi entzuteko, eta hauek Jainkoak beraien bitartez jentilen artean egindako mirari eta egintza harrigarriak kontatu zituzten».

(ISILUNEA)

**- Prestatzeko Agiritik (PA 9, 10 eta 15)**

- “ Elizarentzat eta erakundeentzat jasotako misioaren arabera etorkizun anitza irudikatzeko gaitasuna izango badugu, entzute, elkarte entzute, elkarrizketa eta bereizketarako prozesuak martxan jartzeko erabaki argia izan beha dugu, guztiek eta bakoitzak parte hartzeko eta ekarpena egiteko aukera izan dezagun (PA 9).
- “ «Jesus Jaunak “bide, egia eta bizi” (Jn 14,6) bezala aurkezten du bere burua», eta «kristauei, bere jarraitzaileei, hasieran, “bideko ikasle” esaten zitzaizen (ik. Eg 9, 2; 19, 9.23; 22, 4; 24, 14. 22)» (PA 10).
- “ Guztiok egin beharko genukeen bidearen sena, nagusiki, sinodo-seneko Elizaren aurpegi eta itxura ezagutzean datza, eta bide horretan «guztiok zerbait ikas dezakegu. Herri leial, Gotzain kolegio, Erromako Gotzain: bat, besteak entzunez; eta guztiak Espiritu Santua, “Egiaren Espiritua” (Jn 14, 17) entzunez, Berak “Elizei esaten diena” ezagutzeko (Ap 2, 7)» (PA 15).

(ISILUNEA)

**- Otoitz-giroan, idazki hauek eta geure bizipena kontuan hartuta, hausnar ditzagun ondorengo galderok:**

**Elizan, parroketan, elkarteetan, entzuten ote gaituzte?  
Zerk eragozten du entzute hori?**

**Nola entzunarazi, sarritan gure Elizbarrutian entzuten ez diren gizataldeak (laikoak, gazteak, emakumeak, biziera sagaratua...)?**

**Zertan jarri behar dugu arreta guztiak entzuteko eta Eliza ‘entzulea’ izateko?**

(ISILUNEA)

## 2.- BILERAREN GARAPENA

- **Taldekide bakoitzak batera** jarriko du bere otoitzaren eta galderen inguruko hausnarketaren emaitza. **Entzun egingo dugu bakarrik (ez da eztabaidarik izango).**

**Jarraian, isilunea egin.**

Entzundakoa barneratzeko unea da.

(ISILUNEA)

- **Partaide bakoitzak entzundakoak aditzera eman diona** eta isilunean barneratu duena batera jarriko du. Elkarrizketan jardun daiteke, baina entzutea eta errespetua sustatuz, Espiritua taldekide guztien berben bitartez agertzen zaigula jakinda. **Berriz ere isilunea egin.**

(ISILUNEA)

- **Partaideek aurreko ataletatik deigarrien gertatu zaiena jakinaraziko dute.** Bizi, batera jarri eta entzundakoaren arabera, galdera egingo diote beren buruari:

**Entzuten jakiteari eta beldur gabe hitz egiteari dagokienez, zein hiru urrats ematera bultzatzen gaitu Espirituak elkarrekin joate horretan aurrera egiteko?**

## 3.- AZKEN OTOITZA

**Gure Aita, zeruetan zarana...**

# Adsumus, Sancte Spiritus

Laguntza-erregua Espiritu Santuari sinodo-bilerari ekin aurretik

Hemen gauzkazu, Espiritu Santua,  
zeure izenean batuta.

Gure benetako aholkulari zarena:  
zatoz guregana, gure alde egin,  
sartu gure bihotzetan.

Erakutsiezaguzu bidea  
erakutsi helmugara nola iritsi.

Ez gaitzela okerreko bidetik joan,  
makal eta bekatariei gertatzen zaien bezala

Ezjakintasunak ez gaitzala  
gezurrezko bideetatik eraman.

Emaiguzu bereizketaren dohaina,  
gure ekintzen oinarrian ez dadin  
aurreiritzi eta burutapen faltsurik izan.

Eraman gaitzazu batasunera zuregan,  
egia eta zuzentasunaren bidetik  
aldendu ez gaitzen,  
lur honetako erromesaldian  
betiko bizia jadesten ahalegindu baizik.

Zeuri eskatzen dizugu,  
Aita eta Semearekin bat,  
sasoi eta leku orotan jarduten duzun horri,  
gizaldi eta gizaldietan. Amen.

Vatikano II.aren saio bakoitzaren hasieran, 'Adsumus Sancte Spiritus' (latinezko jatorrizko otoitzaren hasiera: "Zure aurrean gagoz, Espiritu Santua") otoitz otoitza egin zen. Sevillako San Isidorori (k. 560-636) egotzi zaion otoitz hau aspalditik eta luzaroan egin izan da Kontzilio, Sinodo eta Elizaren beste hainbat bileratan. Sinodo-seneko biderei ekiteko deialdia egitean, otoitzak arren eskatzen dio Espiritu Santuari guregan jardun dezan graziaz beteriko elkarte eta herri izan gaitzen. 2021-2023 Sinodoari begira, bertsio sinplifikatua proposatzen dugu, edozein liturgia talde edo batzarrek errazago erabil dezan.